**LANKIDETZARAKO HITZARMENA, GETXOKO UDALAREN GIZARTE ZERBITZUETAKO SAILAREN ETA CARITAS DIOZESIARRAREN ARTEKOA, GIZARTEGINTZAKO PROGRAMAK/ZERBITZUAK AURRERA ERAMATEKO.**

**CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y CARITAS DIOCESANA PARA EL DESARROLLO DE PROGRAMAS-SERVICIOS DE INTERVENCIÓN SOCIAL.**

Getxon, 2012ko irailaren 4an

Getxo, 04 de septiembre de 2012

**BILDU DIRA**

**REUNIDOS**

Batetik, **Imanol Landa Jauregi** Getxoko Udaleko alkate jauna, eta **Ignacio Javier Etxebarria Etxeita** Getxoko Udaleko idazkari jauna.

De una parte **D. Imanol Landa Jauregi**, Alcalde Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Getxo, asistido por **D. Ignacio Javier Etxebarria Etxeita**, Secretario del Excmo. Ayuntamiento de Getxo.

Eta, bestetik, **Mikel Ruiz Martinez** Bizkaiko Caritas zuzendari jauna.

Y de otra **D. Mikel Ruiz Martinez**, director de Cáritas Bizkaia.

***PARTE HARTU DUTE***

**INTERVIENEN**

Lehenengoak Udalaren eskuordetza legalean, Tokiko Araubidearen oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak eman dion eskuordetzan alegia.

El primero, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento, que le confiere el art. 2, de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Bigarrena, Getxoko CARITAS elkartearen buru gisa, Bizkaiko Gobernu Zibilaren Idazkari Orokorreko Elkarteen Probintziako Erregistroa, onarturik 1452 zenbakiarekin.

El segundo, en su condición de Director de CARITAS BIZKAIA, según consta en acta de la Asociación, inscrita en el Registro Provincial de Asociaciones de la Secretaría General del Gobierno Civil de Vizcaya, bajo el núm. 1452.

Bi aldeek nahikoa gaitasun legal aitortzen diote elkarri, Hitzarmen hau sinatzeko, eta, hori dela eta,

Ambas partes se reconocen plena capacidad legal para obligarse y suscribir el presente Convenio, y a tal fin

**AZALDU DUTE**

**EXPONEN**

**LEHENA:** 1985eko Toki- Jardunbideko

**PRIMERO:** Que la Ley reguladora de

oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2 artikuluak jasotzen du udalerrien gaitasunetako bat dela “gizarte zerbitzuak ematea eta gizarteratzea bultzatzea".

bases de Régimen Local de 1985, en su Art. 25.2 recoge entre las competencias de los municipios “la prestación de servicios sociales y la inserción social”.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendua ezartzen duela, eta, horien arabera, gizarte zerbitzuen oinarrizko funtzioa dela beren jarduera eremuko behar sozialak antzematea eta horiei erantzutea (29. artikulua).

Que la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, dispone la organización del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y otorga a los servicios sociales de base como función principal la detección y atención , dentro de su ámbito territorial de actuación, de las necesidades sociales susceptibles de ser atendidas (art 29).

Era berean, "ekimen pribatuak parte hartzea, euskal gizarte zerbitzuetako sistemaren prestazio eta zerbitzu katalogoaren zerbitzuak emateko" izeneko 60 artikuluak, honela dio:

Así mismo, en su artículo 60 titulado “la participación de la iniciativa privada en la prestación de servicios del Catálogo de prestaciones y servicios del sistema vasco de servicios sociales, establece que:

Euskadiko herri-administrazioek zerbitzuak emateko hainbat formula erabili ahal izango dituzte, irabazi asmorik gabeko erakunde laguntzaileekin hitzarmenak egitea, adibidez.

Las administraciones públicas vascas podrán organizar la prestación de servicios a través de distintas fórmulas, entre las que se encuentran los convenios con entidades colaboradoras sin ánimo de lucro.

Eskaeren lehen harrerako prestazioak, eta baita koordinazioari zuzenean lotutakoak, kudeaketa publiko zuzenekoak izango dira, beti.

Las prestaciones de primera acogida de las demandas, así como las directamente asociadas a la coordinación de caso, serán siempre de gestión pública directa.

Euskadiko herri-administrazioak gizarte ekimen pribatuaren gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen saiatuko dira, ahal duten neurrian, baliabideen koordinazio eta lankidetza oinarriak aplikatzeko, gizarte ekimena sustatzeko eta baliabideen aprobetxamendu integrala, arrazoizkoa eta eraginkorra aurrera eramateko.

Las administraciones públicas vascas, en aplicación de los principios de coordinación y cooperación, promoción de la iniciativa social y aprovechamiento integral, racional y eficiente de los recursos, procurarán aprovechar, siempre que resulte adecuado, las capacidades y recursos desarrollados por la iniciativa privada social.

**BIGARRENA:** Caritas irabazi asmorik gabeko erakundea dela eta urte asko daramatzala Getxoko Udalerrian esku hartzen eta pertsona behartsuengana gerturatzen.

**SEGUNDO:** Que Cáritas, es una entidad sin ánimo de lucro con una larga trayectoria de intervención social y de cercanía con las personas en situación de necesidad en el municipio de Getxo.

Bere programa/zerbitzuetako batzuk bildu daitezkeela udaleko gizarte zerbitzuek aurrera daramaten gizarteratze prozesu jakinaren jarduera osagarri gisa.

Que algunos de sus programas/servicios, se pueden englobar como una acción complementaria del proceso específico de inclusión social que se desarrolla desde los servicios sociales municipales.

Azken finean, Caritas Diozesiarrak, bere toki unitateen bitartez, Udal Administrazioari bere helburua lortzen laguntzen dio, lankidetzaren eta gizarte ekimena sustatuz, baliabideen aprobetxamendu arrazoizkoa eta eraginkorra aurrera eramanaz.

Que Cáritas Diocesana, a través de sus unidades locales, constituye, en definitiva, un instrumento que coadyuva a la Administración Municipal en el logro de sus objetivos y que se enmarca dentro de la colaboración y la promoción de la iniciativa social, con un aprovechamiento racional y eficiente de los recursos.

**HIRUGARRENA:** Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailak erakundearen ibilbidea baloratzen duela eta baita ere gizartegintzan egindako lana, hori baita bere helburua, Gizarte Zerbitzuetako Sailaren gaitasunen eta helburuen antzekoa, alegia.

**TERCERO:** Que el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getxo, valora positivamente la trayectoria de dicha Entidad y el trabajo que desarrolla en materia de intervención social, constituyendo el objeto del mismo, materia afín a las competencias del Departamento de Servicios Sociales y a sus objetivos.

Akordioan jasotako helburuez gain, Caritas Diozesiarrak tokiko mailan egiten duen lana aitortzea da helburua, eta baita berezko gizarte ekimenak sortutako zerbitzuetako batzuk mantentzen laguntzea ere.

Que además de los objetivos propios señalados en el Objeto del acuerdo, se pretende reconocer la labor realizada por Cáritas Diocesana a nivel local, y favorecer el mantenimiento de algunos de los servicios creados por iniciativa social propia.

Hori dela eta, sinatzaileek

En consecuencia las partes firmantes,

## ERABAKI DUTE

## ACUERDAN

**LEHENA.- ARRAZOI**

**PRIMERO.- OBJETO**

Lankidetza marko iraunkorra ezartzea Getxoko Udalerriko Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Caritas Diozesiarraren artekoa, interes komuneko

Establecer un marco estable de cooperación entre el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getxo y Cáritas Diocesana, en el que se

programak/zerbitzuak biltze aldera. Hauek dira:

- Eskola laguntza.
- Bakardadean konpainia egitea.
- Etxebizitza duina eskuratzen laguntzea.

aglutinen los distintos programas/servicios de interés común. Estos son:

- Apoyo escolar.
- Acompañamiento en la soledad.
- Acompañamiento en el acceso a una vivienda digna.

**HELBURUA**

Programa/zerbitzu horiek eskuratzeko eta kudeatzeko prozedurak modu koordinatuan erregulatzea, hitzarmen honetako eranskinak jasotakoaren arabera eta ondoko klausulak betez.

**OBJETIVO**

Regular los procedimientos de acceso y gestión de éstos programas/servicios de manera coordinada, según lo establecido en el anexo del presente convenio y con sujeción a las cláusulas que a continuación se indican.

**BIGARRENA.- JARDUERA OINARRIAK**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 legeak jasotakoarekin adostasunean.

Hitzarmen honetako esku-hartzeak lehen aipatutako legearen 7. artikuluak arautuko ditu; adibidez:

Erantzukizun publikoa; nolanahi ere, sistemara sartzeko prestazioen, eskaera lehenengo harrerako prestazioen eta kasu koordinazioarekin zuzenean lotutako prestazioen zuzeneko kudeaketa bermatuko dute.

Unibertsaltasuna; prestazioez eta zerbitzuez baliatzeko eskubidea bermatuko diete eskubide horren titular diren pertsona guztiei; nolanahi ere, prestazio eta zerbitzu horietaz baliatzeko eskubidea berariazko baldintzak betetzeko betebeharraren pean jarri ahalko da.

Berdintasuna eta ekitatea, baldintza

**SEGUNDO.- PRINCIPIOS DE ACTUACIÓN**

De conformidad con lo regulado en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Las intervenciones objeto del presente convenio se regirán por los principios contenidos en el art. 7 de la antedicha Ley, tales como:

Responsabilidad pública, garantizando en todo caso la gestión pública directa de las prestaciones de acceso y primera acogida de las demandas, y de las directamente asociadas a la coordinación de caso.

Universalidad, garantizando el derecho a las prestaciones y servicios a todas las personas titulares del mismo, sin perjuicio de que dicho acceso se pueda condicionar al cumplimiento de requisitos específicos.

Igualdad y equidad, sin discriminación

pertsonalei edo sozialei inolako diskriminaziorik egin gabe.

alguna asociada a condiciones personales o sociales.

Hurbiltasuna; hurbiltasunaren printzipioari erantzunez, gizarte zerbitzuak, haien izaerak aukera ematen duenean, ahalik eta deszentralizaziorik handienarekin eskainiko dira.

Proximidad, aplicando criterios de máxima descentralización y cercanía a las personas potencialmente usuarias del servicio, cuando su naturaleza lo permita.

Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa. Bazterketa sortzen duten edo bizimodu autonomoa egiturazko kausen azterketa eta prebentzioa egingo dute gizarte-zerbitzuek. Era berean, herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzea izango dute helburu.

Prevención, integración y normalización. Analizando y previniendo las causas estructurales que originan la exclusión o limitan el desarrollo de una vida autónoma. Y orientándose hacia la integración de la ciudadanía en su entorno de una manera normalizada.

Arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraitasuna. Pertsona eta/edo familia bakoitzaren beharrizan bereziei egokitua eta haien egoeraren eboluzio integral batean oinarritua, eta arreta jarraitua eta integrala izango dela bermatu beharko du, nahiz eta administrazio edo sistema bat baino gehiago jardun.

Atención personalizada e integral y continuidad de la atención. Ajustada a las necesidades particulares de la persona y/o familia, y basada en la evaluación integral y en la continuidad de la atención aún cuando implique a distintas administraciones o sistemas.

Esku-hartze interdisziplinarioak. Talde lana eta gizartegintzan ari diren hainbat lanbide ekarpenen integrazioa sustatuz, baita egokiak diren besteenak ere.

Carácter interdisciplinar de las intervenciones. Promoviendo el trabajo en equipo y la integración de las aportaciones de las diversas profesiones del ámbito de la intervención social y cualesquiera otras que resulten idóneas.

Koordinazioa eta lankidetza. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek koordinazio eta lankidetza betebeharren arabera jardungo dute, bai eta irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuekin ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak jasotako baldintzatan. Koordinazio eta elkarlan horrek gainditu beharko du gizarte zerbitzuen arloa, eta beste babes sistema eta politika publiko batzuetara hedatu beharko da.

Coordinación y cooperación. Las administraciones públicas vascas actuarán de conformidad con el deber de coordinación y cooperación entre sí, así como con la iniciativa social sin ánimo de lucro y la iniciativa privada en los términos establecidos en la Ley de Servicios Sociales. Trascendiendo del ámbito de los Servicios Sociales y extendiéndose a otros sistemas y políticas públicas de protección.

Gizarte ekimena sutatzea. Ez du irabazi asmorik, gizarte zerbitzuetako eremuan.

Promoción de la iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de los servicios sociales.

Herritarren parte-hartzea. Pertsonen eta taldeen arteko lankidetza solidarioa eta erabiltzaileen parte-hartzea sustatuz.

Participación ciudadana. Promoviendo la colaboración solidaria de las personas y de los grupos, así como la participación de las personas usuarias.

Kalitatea. Kalitate estandar gutxieneko batzuk bermatuz eta kalitatera zuzendutako kudeaketa sustatuz.

Calidad. Garantizando unos estándares mínimos de calidad y promoviendo el desarrollo de una gestión orientada a la calidad.

**HIRUGARRENA.- HARTZAILEAK ETA SARRERA**

**TERCERO.- PERSONAS DESTINATARIAS Y ACCESO**

Hartzaileak dira Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik datozenak, baldin eta honekin batera doazen eranskinek jasotako baldintzak betetzen badituzte, hitzartutako zerbitzu bakoitzari dagokienez.

Son destinatarias, las personas derivadas desde los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getxo que cumplen los requisitos que figuran en los anexos que se adjuntan, relativos a cada uno de los servicios conveniados.

**LAUGARRENA.- ERAKUNDEAREN FUNTZIOAK ETA KONPROMISOAK**

**CUARTO.- FUNCIONES Y COMPROMISOS DE LA ENTIDAD**

Hitzarmenak jasotako zerbitzuak bete daitezen, Caritas Diozesiarrak eranskinak jasotako prozedura bakoitzaren funtzioak aurrera eramateko konpromisoa hartu du; besteak beste:

Cáritas Diocesanas para el desarrollo de los Servicio objeto del presente Convenio, se compromete al desarrollo de las funciones propias de cada uno de los procedimientos recogidas en el anexo, así como a:

Programak/zerbitzuak kudeatzeko eta hornitzeko beharrezko instalazioak izatea, indarrean dagoen arautegia betez.

Contar con las instalaciones necesarias y adecuadas para la gestión y provisión de los distintos programas/servicios, con arreglo a la normativa vigente.

Langileria nahikoa eta egokia izatea, helburu soziala behar bezala aurrera eramateko.

Dotar del personal suficiente y adecuado para el normal desarrollo del objeto social que se pretende.

Koordinazio bileretan parte hartzea, baita hitzarmenaren programekin/zerbitzuekin zerikusia dutenetan ere, udalak eskatuta.

Participar en las reuniones de coordinación que se establezcan y aquellas otras relacionadas con los programas/servicios objeto del convenio, a requerimiento municipal.

Gizarte Zerbitzuetako Sailak eskatutako datuak eta txostenak ematea, zerbitzuari buruzkoak.

Aportar cuantos datos e informes que sobre la prestación del servicio pueda serles requeridos por el Departamento de Servicios Sociales.

**BOSGARRENA.- AURREKONTUA**

**QUINTO.- PRESUPUESTO**

Getxoko Udalak, 2012. Urtean jarduera eta zerbitzuak emateN parte hartuko du, **15.000**,- eurotan hitzartuak.

El Ayuntamiento de Getxo participará en el año 2012 en la financiación de las actividades y servicios conveniados en la cantidad de **15.000,00- €.**

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen arabera (17. eta 34.4 artikuluak), hitzarmen honek aukera ematen du aldez aurretik ordainketak eta konturako abonamenduak egiteko.

De acuerdo a la Ley 38/2003 de subvenciones (art. 17 y 34.4) el presente convenio contempla la posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta.

Aldez aurretiko ordainketak justifikatu aurretik funtsak entregatzea esan nahi duena, diru-laguntzaren jarduerak egiteko beharrezkoa den finantzazio gisa.

Los pagos anticipados, supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención

**SEIGARRENA- ERREGIMEN JURIDIKOA**

**SEXTO.- RÉGIMEN JURÍDICO**

Hitzarmenak izaera administratiboa du, eta, ondorioz, berezko klausulak nahiz aplikaziokoa den legediak araututa dago.

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se rige en consecuencia, además de por sus propias cláusulas, por la legislación aplicable en su caso

**ZAZPIGARRENA.- BALIABIDE PERTSONALAK ETA MATERIALAK**

**SEPTIMO.- RECURSOS PERSONALES Y MATERIALES**

Baliabide materialak, instalazioak eta giza baliabideak Caritasen kargura izango dira, bereziki. Kasu horietan, zerbitzu bakoitzeko arduraduna izango dute, elkarrizketak aurrera eraman ditzan Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin.

Los recursos materiales, las instalaciones, y los recursos humanos serán con cargo exclusivo a Cáritas. Contando, en todos los casos, con una persona responsable de cada servicio que realizará funciones de interlocución con el Departamento de Servicios Sociales municipal.

**ZORTZIGARRENA.- ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA**

**OCTAVO.- ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO**

Helburu horretarako, zerbitzu

Se seguirá al efecto, el procedimiento

bakoitzerako prozedura jarraituko da, honekin batera doan ERANSKINAK jasotakoaren arabera.

establecido para cada uno de los servicios, que se contiene en ANEXO adjunto.

**BEDERATZIGARRENA.- JARRAIPENA ETA IKUSKAPENA**

**NOVENO.- SEGUIMIENTO Y SUPERVISIÓN**

Hitzartutako programen/zerbitzuen funtzionamenduari buruzko txosten deskribatzailea eta aztertzailea aurkeztuko da Gizarte Zerbitzuetako Sailean, eta txosten hori Sailak eta Erakundeak aztertuko dute, elkarrekin, koordinazio eta jarraipen bileran, sei hilero.

Semestralmente, se presentarán al Departamento de Servicios Sociales, un informe descriptivo y analítico sobre el funcionamiento de los programas/servicios conveniados que será analizado conjuntamente entre el Departamento y la Entidad en una reunión semestral de coordinación y seguimiento.

Era berean, urteko memoria emango da, hitzarmenaren iraupeneko urtea amaitzen denean. Memoria hori zuzeneko ikuskapenean eta esku-hartzean oinarrituko da, eta, halaber, diru-sarreren eta gastuen balantze ekonomikoan parte hartuko du; horretarako, egiaztapen agiriak aurkeztu beharko dira, hitzarmeneko programak/zerbitzuak aurrera eramateko zenbatekoaren norakoa zehaztuz.

Así mismo, se entregará una memoria anual, una vez finalizado el año de vigencia del Convenio, basada en la observación directa y la intervención realizada, y de la que formará parte, asimismo, el balance económico de ingresos y gastos, justificado documentalmente y en el que se especifique el destino dado al importe económico recibido para la realización de los programas/servicios objeto de convenio

Hitzarmeneko programen/zerbitzuen koordinazio teknikoa aurrera eramango du koordinazio arduradunak, eta bera izango da ohiko solaskidea erakundearen aurrean.

La coordinación técnica de los programas/servicios objeto de este convenio se llevará a cabo por la Coordinadora responsable del mismo, constituyéndose así en la persona interlocutora ordinaria ante la Entidad.

Getxoko Udalak beretzat gordetzen du egoki deritzen ikuskapen eta egiaztapen guztiak egiteko eskubidea, CARITAS DIOCESANA elkartek hartu dituen konpromisoak betetzen ari den ziurtatzeko.

El Ayuntamiento de Getxo se reserva la facultad de realizar cuantas inspecciones y comprobaciones estime oportunas en orden a verificar el cumplimiento de los compromisos asumidos por CARITAS DIOCESANA.

**HAMARGARRENA.- EPEA:** Hitzarmenak urte beteko iraupena izango du, 2012ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

**DECIMO.- PLAZO** La duración del presente Convenio será de un año, desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2012

**HAMAIKAGARRENA.- DATUAK BABESTEA:** Datu pertsonalei buruzko araudia betez, bi alderdiek konpromisotzat hartu dute Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Legean eta aplika daitezkeen gainerako legeetan ezarritakoa beteko dutela, lege horiek aplika daitezkeen kasuetan

**UNDÉCIMO.- PROTECCIÓN DE DATOS** En cumplimiento con la normativa reguladora de los datos de carácter personal, ambas partes se comprometen a cumplir, en los términos que sean de aplicación, lo establecido en la Ley 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, de 13 de diciembre de 1999 y legislación aplicable.

Horrela ba, ados daudela adierazteko bi aldeek hitzarmen honen bi kopia sinatu dituzte goian agertzen den toki eta egunean

Y en prueba de conformidad, los otorgantes firman y ratifican el presente convenio, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento

**D. IMANOL LANDA JAUREGI *jn***
**Getxoko Udaleko Alkatea**
Alcalde del Ayuntamiento de Getxo

**D. Mikel Ruiz Martinez**
**Caritas Bizkaia ren Zuzendaria**
Director de Cáritas Bizkaia

D. IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA ETXEITA *jn.*
***Getxoko Udaleko Idazkari Nagusia***
Secretario General del Ayuntamiento de Getxo